

ERANSKINA

AZPko kideentzako HOBKUNTZA IKASTAROA

2018 URTEA (Urtarrila-Ekaina).

UPV/EHUko II. Euskara Plan Gidarian jasota dagoen moduan, AZPkoen hizkuntza-prestakuntza etengabe hobetu nahian, AZPko langileentzat hobekuntza ikastaro berezituak eskaintzen dihardu Euskararen arloko Errektoreordetzak.

2017/2018 ikasturte honetan, IVAPek egindako berariazko eskaintzako zenbait ikastaro egin ahal izan dira udazkenean. Eta urte hasieratik ekaina bitartean, beste eskaintza hau egingo da: batez ere langileei, jakintzatik erabilerara jauzia egiteko baliabideak eman nahi dizkiegulako.

Euskararen erabilera bultzatzeko, euskaraz idatzi eta hitz egiteko guneak sortu nahi ditugu, eta gune horiek ondoren lantokietaraino hedatu daitezela.

Saio hauetan, euskararen erabileran segurtasuna berreskuratzea da helburu nagusia. Eta horretarako erabili daitezkeen estrategiak aztertuko dira eta lanerako erregistro, lexiko, testu eta diskurtso motak jorratuko dira.

Deialdi honen bitartez 2018ko urtarrilean hasi eta ekainera bitarteko **HOBKUNTZA IKASTAROETAN** izena emateko epea zabaltzen da.

Ikastaroak

Saioa	Lekua	Gutxieneko HE	Helburua
"Euskarari beldurra kenduz, ahozkoan lehen urratsak "	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	1. HE	<ul style="list-style-type: none"> • 2.HEko azterketa gainditzeko atarian dauden langileentzat. • Euskararen erabileraren "beldurra" gainditzeko eman behar duten saltoa emateko laguntza.
" Oinarrizko jarduna ahozkoan".	Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa	2. HE	<ul style="list-style-type: none"> • Modu sinplean bada ere, naturaltasunez hitz egitea lortu nahi duten langileentzat bideratutako ikastaroa. • 2HE egiaztatu duten langileentzat. • Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat.

<p>“Administrazioan ahoz komunikatzeko gaitasuna lantzen”</p>	<p>Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioa</p>	<p>3. HE</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Beharrezkoak diren hizkuntza-baliabideak eta testugintzari loturiko aholkuak lantzea. • Testuaren kohesioa eta diskurtsoaren garapen orokorra eta egokitasuna lantzea. • Goi mailako mintzamena landu nahi duten ikasleentzat. • 3.HE egiaztatu duten langileentzat. • Euskaraz hitz egiteko guneak bilatzen dituztenentzat. • Testu komunikatiboak sortzeko gaitasuna lantzea. • Lehentasuna izango dute 3HE egiaztatua duten langileak 4HE egiaztatua dutenen aurrean.
--	---	--------------	--

Ordutegia:

Talde guztiek ordutegi bera izango dute, 08:00etatik 10:00etara. Ezinbestekoa izango da ikastarora garaiz heltzea, eskola bi ordukoa da eta.

Eguna:

Ostiraletan.

Hasiera data:

Urtarrilaren 26an.

Bukaera data:

Ekainaren 29an.

Lekua:

Gasteiz, Donostia, Bilbo eta Leioan: Campusean bertan.

Onartua izateko baldintzak:

- Eskatzen den HE egiaztatua izatea.
- Zerbitzuburuaren onespina.
- Eskarian, datu guztiak ongi betetzea.
- Lehentasuna izango dute, 2017/2018 ikasturtean, lanorduetan liberazioa ez duten langileak. Lekurik balego, liberazioa dutenek, ordutegiak ez badu bat egiten, aukera izango dute ikastaroan parte hartzeko, gainontzeko baldintza guztiak betetzen badituzte.

Onartua izateko irizpideak:

Hizkuntza eskakizuna, lan harremana, lanpostuaren unitatearen izaera eta antzintasuna izango dira kontuan.

Nola eman izena:

Honekin batera zabaltzen den formularioa betez eta Euskararen eta Etengabeko prestakuntzaren arloko Errektoreordetzara bidaliz erregistro orokorraren bitartez.

Izena emateko epea:

2017ko abenduaren 19tik, 2018ko urtarrilaren 5era (biak barne). Ez da onartuko epez kanpoko eskaririk.


Taldean antolakuntza:

Taldeak sortzeko gutxieneko ikasle kopuru bat beharko da: 6 ikasle gutxienez eta 15 gehienez.

Gutxieneko kopuru hori egon ezean, ikastaroa bertan behera geratuko da.

Onartu eta baztertuen zerrendak argitaratu:

- Behin-behineko zerrendak urtarrilaren 15ean argitaratuko dira.
- Erreklamazioetarako epea: 2 eguneko izango da (urtarrilak 16 eta 17).
- Behin betiko zerrendak urtarrilaren 19an argitaratuko dira.



Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea

Jon Zarate Sesma